

“Gazteon egoera ez da egokiena, ez da nahi eta behar duguna”

- “2016ko ekainetik Indarkeria Matxistaren aurkako protokoloa sei egunean behin aktibatu dugu” azpimarratu du Maialen Olabek
- “Enplegu eta etxebizitza arloetan ditugun baldintzek bizi-proiektua egitea zailtzen dute” adierazi du EGK-ko presidentek

Gasteiz, 2018ko maiatzaren 30a. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) gazteon egungo egoera mahai-gainean jarri du. “Gazteon egoera ez da egokiena, ez da nahi eta behar duguna. Hainbat gauza daude aldatzeko enplegu eta etxebizitza arloetan, baina baita berdintasunean ere. Urtean hainbatetan aktibatu behar baititugu Indarkeria Matxistaren eta LGTBIfobikoaren aurkako protokoloak”, adierazi du EGK-ko presidentek, Maialen Olabek.

Eusko Legebiltzarreko Enplegu, Gizarte Politika eta Gazteria Batzordean egindako agerraldian **Berdintasun lan-arloak aipamen berezia izan du**. EGK-ko presidentek adierazi duenez Gaur8 lantaldeak eta Berdintasun lan-arloak garatutako Indarkeria Matxistaren aurkako protokoloa **“2017an 68 aldiz aktibatu** behar izan dugu. “2016ko ekainetik hona begiratura sei egunean behin”, salatu du Olabek. Era berean erantsi du aktibatutako “kasu batzuetan eraso emakume bat baino gehiagok jasan duela”. “2017an, zehazki eraso jasandako 92etatik, %76,6 aurkitzen zen 16-30 urte bitartean”. Erasotzaileari dagokionez, EGK-ko presidentek aurkeztutako datuen arabera, “%19,06 aurkitzen zen 16-30 urteko adin-tartean”. Aipatutako protokoloaren eskariak gogorarazi nahi izan ditu Olabek. “1/2004 Legeak aldaketak behar ditu, esaterako, emakume izateagatik jasandako eraso oro ulertu beharko litzateke Indarkeria Matxista bezala”, aldarrikatu du EGK-ko presidentek.

“Gazteok emantzipatzeko ditugun arazoak”

Legebiltzarkideen aurrean egindako agerraldian emantzipatzeko dituzten arazoak azpimarratu ditu Olabek. Pertsona gazte batek “etxebizitza gastuetara diru-iturrien %30a” bideratzea aholkatzen dela oroitu eta egungo egoera “oso bestelakoa” dela jakinarazi du. **“Jabetzan izateko, batez beste 18 eta 34 urte bitarteko gazte batek diru-sarreraren %54,9 bideratu behar du; alokairuan %66,9 (880€)”**. Era berean aholkatutako kopurua betetzea ahalbidetzen duen bakarria “alokairu babestua” dela zehaztu du EGK-ko presidentek: “Orokorrean diru-sarrerek %83 igo beharko lukete etxea erosteko, emakumeen kasuan ia %100; alokairuan %122,8 eta %143,3 hurrenez hurren”.

Egoera sozioekonomikoarekin amaitzeko enpleguari eta honen baldintzei tartea eskaini dio Olabek: “2018ko lehen hiruhilekoan **16 eta 29 urte bitarteko gazteen %16,4 langabezian** dago, emakumeen kasuan %18,6 eta gizonezkoetan %14,2”. Horrek “bizi-proiektua egitea zailtzen” duela salatu du Olabek. Era berean, EGK-ko presidentek gehitu “krisi ekonomikoak gazteoi gogor eragin” diela eta datuetan argi ikusten dela, langabezia-tasa orokorra %11,3 baita. Horregatik, Olabek legebiltzarkideei “lanean jarraitu eta hausnartzeko” eskatu die oraindik asko egiteko baitago “enpleguaren kalitatean”. Horren adierazgarri bezala **2017an EGK-k “lan istripuen aurkako protokoloa lau aldiz” aktibatu** duela oroitarazi du, “birritan istripu larriengatik eta beste

birritan langilearen heriotzagatik”. Era berean, lanaldi partzialean “gero eta gazte gehiago” daudela salatu du EGK-ko presidentek, “batez ere emakume gazteak”.

Horretaz gain, Olabek **2017an egindakoaren memoria** aurkeztu du. Lan-arloen azalpen orokorra egin du, besteak beste: Indarkeria Matxistaren aurrean gazteen posizionamendu publikoa sustatzeko **#GukEzetz! kanpaina**, hezitzaileei bideratutako gidak (Sexualitatearen Koloreak eta Mugarik Gabeko Aniztasuna), bake eta bizikidetzaren lan-arloko teknikariak eta presidentek **Saharako Errefuxiatuen kanpamentuetara formakuntza** bat eskaintzera egindako bidaia, gazteen iritzia islatzeko Lan egokiaren kanpaina, bizikidetzaren eta aniztasuna jorratzeko **#GazteokBizikidetzan** ekitaldia eta ikasleek urtean zehar dituzten garraio-gastuak aztertzeko **#ZergArrai!** txostena.

2018rako hainbat proiektu

Legebiltzarkideen aurrean EGK-ko presidentek elkarten plataformaren **2018rako lan-ildo nagusiak** azpimarratu ditu. “Azken urteetan bezala, berdintasun lan-arloa oso garrantzitsua izango da”, aurreratu du Olabek. “Parte-hartzean ikusi dugun maskulinizazioa dela-eta **Plazandre** proiektua jarriko dugu martxan emakumeok publikoki aritzeko ditugun arazoak, trabak eta erronkak jorratzeko”, behin hauek lortutakoan “EGK-ko elkarteei tresnak helarazteko”.

Horretaz gain, EGK-ko presidentek jakinarazi du enplegu eta etxebizitza lan-arloan “**Europako eredu eta adibideak** aztertu” direla haietatik zerbait “Euskadin aplikatu daitekeen” ikusteko. 2018an jorratuko diren beste proiektu batzuk “UPV/EHUko Unibertsitateko elkarten arteko topaketa” eta uztailan eskainiko den “Unibertsitateak bizi zaitu udako ikastaroa”.

Era berean, Olabek azaldu duenez, 2016ko ekainetik aktibatzen duten Indarkeria Matxistaren aurkako protokoloan aipatzen den “**Hezikidetzaren** garatzeko galdetegi bat eta eztabaida-taldeak antolatuko ditugu gazteen ikuspegia batzeko”.

Azkenik, **EGKren funtzioa gogorarazi die legebiltzarkideei**. “Ganbera honetan adostutako lege baten eskutik jaio ginen eta 30 urte baino gehiagoz sortze-arrazoi horien ildotik egin dugu lan: gazteen, gazte-elkarteen eta erakundeen arteko interlokuzio eta zubi lana egitea”.